

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3510

1306/2026 EBAZPENA, uztailaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A1 fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko farmaziako fakultatibo tekniko kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2025eko urriko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten A1 fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko I. eranskinean (horretan farmaziako fakultatibo teknikoaren kategoria / lanpostu funtzionala sartzen da) zerrendatutako kategorietako / lanpostu funtzionalerako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitu zen (2021eko azaroaren 8ko EHAA, 221. zk.). Aipatu deialdia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean bildutako oinarriak arautuko du.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 10eko 1370/2025 Ebazpenaren bidez argitaratu zen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2025eko urriko zikloaren destinoen eskaintza, fakultatibo medikoen eta teknikoen lanbide-taldeko farmaziako fakultatibo tekniko kategoriako / lanpostu funtzionalerako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako (2026ko urtarrilaren 8ko EHAA, 4. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Langileen eta Talentuaren zuzendariaren maiatzaren 26ko 847/2026 Ebazpenaren bidez, argitaratu ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A1 fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko farmaziako fakultatibo tekniko kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2025eko urriko zikloan eskainitako destinoen behin-behineko esleipena egin zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoa betetzeko, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren I. eranskineko A1 fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldearen kategorien / lanpostu funtzionalen zerrendaren parte den farmaziako fakultatibo tekniko kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Onartzea, ebazpen honen I. eranskinaren bidez eta lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran, A1 fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko farmaziako fakultatibo tekniko kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2025eko urriko zikloko onartutakoen behin betiko zerrenda. Destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 10eko 1370/2025 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.— Onartzea, ebazpen honen II. eranskinaren bidez eta baztertzeko arrazoia adierazita, A1 fakultatibo medikoak eta teknikoak lanbide-taldeko farmaziako fakultatibo tekniko kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2025eko urriko zikloko baztertutakoen behin betiko zerrenda. Destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 10eko 1370/2025 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.— Agintzea, ebazpen honen III. eranskinaren bidez, argitara emateko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 10eko 1370/2025 Ebazpenaren II. eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.— Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.— Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaia, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira izangaia, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan, esleipenduna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori zenbatzeko, betetzen duen destinoa ere hartu beharko da kontuan, azken horren esleipendun ez bada behintzat. Halakoetan, interesduna behin-behineko atxikipenean badago, EHAA-ko destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean jabetuko da lanpostuaz, eta, zerbitzu-eginkizunen eta aldi baterako barne-sustapenaren kasuetan, kargua utzi eta hurrengo egunean.

Seigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Zazpigarrena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 apartatuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAA-ko argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.

I. ERANSKINA

1370/2025 EBAZPENAREN ZIKLOA

ONARTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FARMAZIAKO FAKULTATIBO TEKNIKO

LANPOSTU FUNTZIONALA: FARMAZIAKO FAKULTATIBO TEKNIKO

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***7821**	Hernandez Gil, Arantzazu	70,1742
2	***7342**	Fontan Basañez, Isabel	43,3355

II. ERANSKINA

1370/2025 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAA

KATEGORIA: FARMAZIAKO FAKULTATIBO TEKNIKOAA

LANPOSTU FUNTZIONALAA: FARMAZIAKO FAKULTATIBO TEKNIKOAA

NAN	Izen-abizenak	Baztertzeke arrazoia
***6250**	Estevez Aranaga, Izaskun	Ez du 2.1.2. oinarria betetzen
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du plazarik kategorian

III. ERANSKINA
1370/2025 EBAZPENAREN ZIKLOA
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA
KATEGORIA: FARMAZIAKO FAKULTATIBO TEKNIKOA
LANPOSTU FUNTZIONALA: FARMAZIAKO FAKULTATIBO TEKNIKOA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***7821**	Hernandez Gil, Arantzazu	Arabako Errioxako ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Lezako Ospitalea-Laguardia / AUOko Administrazioa (Adriano-Vitoria-Gasteiz / Farmazia Unitatea-Farmazia unitatea-Farmazia Unitatea / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Espezifikotasun gehiagorik gabe	2	2022-10-18
***7342**	Fontan Basañez, Isabel	Bilbao-Basurtuko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Bilbo- Basurtuko ESIko Administ-Bilbao / Farmazia Unitatea-Farmazia Unitatea-Farmazia Unitatea / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez- Espezifikotasun gehiagorik gabe	2	2023-11-20